

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak eta NUPak Zuzenbideko eta Ekonomiako espezialista propioen bi titulu eskaintzen ditu kudeaketa publikorako

*Ikasturte honetan emango dira, eta Nafarroako Administrazio
Publikoetako funtzionarioentzat da*

Martes, 20 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2011-2012 ikasturte honetarako [zuzenbideko](#) eta [ekonomiako](#) espezialista unibertsitarioko bi titulu propio eskaintzen ditu kudeaketa publikorako, funtzio publikora bi alor horietako tituludun gisa sartu ziren Administrazio Publikoen funtzionarioentzat.

Nafarroako Gobernuak, Administrazio Publikoetako Nafarroako Institutuaren bidez (INAP), NUParekin lankidetzeta-hitzarmen bat izenpetuta duen erakunde autonomoa, titulu propio horietan matrikulatutako parte-hartzaileen ordu presentzialak egiaztatuko ditu langileak eta administrazio-karrera sustatze aldera. Izena emateko epea zabalik dago jada, eta informazio guztia honako webgune honetan deskarga daiteke:

Unibertsitate Gizarte Fundazioaren bidez kudeatutako titulazio horien helburua, Nafarroako Administrazio Publikoen funtzionarioen kudeaketa publikoari buruzko ezagutzak eguneratu eta hobetzea da (Nafarroako Gobernua, udalak, kontzejuak edo enpresa publikoak), bai eta izateko asmoa duten pertsonena ere.

Kudeaketa publikorako Ekonomiako espezialista unibertsitarioaren titulu propioa 2012ko lehen eta bigarren lauhilekoan emango da, eta Joseba de la Torre NUPko Historia eta Erakunde Ekonomikoen katedratikoak zuzenduko du. Ikasketa-programa ekonomia eta enpresako arloen inguruan egituratzen da diziplina arteko izaerarekin, eta kudeaketa nahiz administrazio teknikan jada espezializatutako langileentzat orientatuta dago.

Bestalde, Kudeaketa publikorako Zuzenbideko espezialista unibertsitarioaren titulu propioaren helburua da: Nafarroako Zuzenbide Publikoan espezializatzea, Administrazio Publikoei aplikatu beharreko legeriari buruzko ezagutzak eguneratzea eta administrazioarekiko harremanetan ezagutzaren gaitasunak hobetzea eta erabilitako teknika juridikoak erabiltzea. NUPko Administrazio Zuzenbideko irakasle José Francisco Alenza irakasleak zuzentzen du, eta 2011ko urriaren eta 2012ko ekainaren artean emango da.

Bi kasuetan, ikasketa-programa nahitaezko modulu edo ikastarotan eta hautazko modulutan egituratzen da. Espezialista titulua eskuratzeko, matrikulatuek nahitaezko ikastaroak eta hautazkoak diren beste ECTS (hezkuntzako sistema europar ezberdinen bateratzea bermatzen duten kredituen sistema estandarra) 15 kreditu egin beharko dituzte